



BANDOA/BANDO

COVID-19ren ondorioz Estatuko Gobernuak deklaratuak alarma-egoeraren "deseskalatzea" deritzonaren azken fasean sartuko gara. Hala ezartzen dute estatuko eta autonomia-erkidegoko arau hauek, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2020ko ekainaren 6an, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2020ko ekainaren 7an, hurrenez hurren argitaratuek:

- [SND/507/2020](#) Agindua, ekainaren 6koa, zenbait agindu aldatzen dituena, eremu nazionalako zenbait murrizketa malgutzeo eta normaltasun berri baterako trantsiziorako Planaren 2. eta 3. faseetan aurrera egiten duten lurralde-unitateak ezartzeko.

- [13/2020 Dekretua](#), ekainaren 7koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez trantsizio-prozesuaren 3. fasea kudeatu eta aplikatzeko arauak ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

Entramos en la última fase del llamado "desescalamiento" del estado de alarma, declarado por el Gobierno del Estado, como consecuencia del COVID-19. Así lo establecen las siguientes Normas, estatal y autonómica, publicadas respectivamente en el Boletín Oficial de Estado de 6 de junio de 2.020, y en el Boletín Oficial del País Vasco de 7 de junio de 2.020:

- [Orden SND/507/2020](#), de 6 de junio, por la que se modifican diversas órdenes con el fin de flexibilizar determinadas restricciones de ámbito nacional, y establecer las unidades territoriales que progresan a las fases 2 y 3 del Plan para la transición hacia una nueva normalidad.

- [Decreto 13/2020](#), de 7 de junio, del Lehendakari, por el que se establecen, para el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, normas para la gestión y aplicación de la fase 3 del proceso de transición.

Gure bizitzaren normaltasunerako azken urrats honetan bagaude, esan nahi du COVID-19ren pandemiaren aurkako borrokaren lehen lerroan aritu diren pertsona askok egindako ahaleginak eta egindako sakrifizioak fruitua eman dutela. Hala ere, kontuan hartu behar dugu, alde batetik, hedabideek estatuko hainbat tokitan noizean behin sortzen diren gaixotasunaren berragertze-foku zehatzen berri ematen dutela, beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala; eta, bestetik, egin eta argitaratu diren osasun-azterlanek adierazten dutela jada gaixotasunarekiko immunitatea duten bizilagunen ehuneko nahiko txikia dela, eta horrek esan nahi du herritar gehienek edonon har dezaketela gaixotasuna.

Si nos encontramos en este último paso hacia la normalidad de nuestras vidas, significa que el esfuerzo y sacrificio empleados por muchas personas, que han estado en primera línea de la lucha contra la pandemia del COVID-19, han dado su fruto. Sin embargo, debemos fijarnos, por una parte, en que los medios de comunicación se hacen eco de los concretos focos de rebrote de la enfermedad que se producen de vez en cuando en distintos puntos del Estado, al igual que también ocurre en otros países; y por otra parte, en que los estudios sanitarios que se han hecho y publicado afirman que el porcentaje de población que se considera ya inmune a la enfermedad es relativamente pequeño, lo que quiere decir, que la gran mayoría de la población estaría en riesgo de poder contraer la enfermedad en cualquier momento.

Horren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa da herritarrei erantzukizunerako deia behin eta berriz egitea, gerta daitekeen kutsatzearen prebentzioan lasaitze funsgabeen ez erortzeko.

Ante ello, es más necesaria que nunca la insistencia en el llamamiento a la responsabilidad de la ciudadanía para que no caiga en una infundada relajación en la prevención de un



HONDARRIBIKO UDALA

Beraz, berriro eskatzen diet Hondarribiko bizilagun guztiei eta gure hirira etortzen diren bisitariei agintari eskudunek ezarritako osasun-segurtasuneko neurriak zehatz eta zorrotz bete ditzatela, eta, horrela, aire zabaleko espazioetan edo inguru itxietan, publikoetan zein pribatuetan, garraioan, laneko jardueretan eta bilera profesionaletan, sozialetan eta familiakoetan, aisialdian eta abarretan pertsonen arteko osasun-segurtasuneko 2 metroko distantziari eusteko, maskarak erabiltzeko eta, eskuak maiz garbituz edo hidrogelak erabiliz, higie-ne tengabeari eusteko.

Ezin diogu gaixotasunari aukerarik eman gure bizitzak berriro aldatu, kalte egin eta are horiei amaiera traumatikoa emateko ere, aurreko hilabeteetan gertatu den bezala. Ezin dugu inozoki pentsatu gaixotasunetik libre gaudela, prozesu gogorra besterik ez dela izan, baina pasa eta atzean geratu dela. Osasun-profesionalek etengabe gogorarazten digute gaixotasunak gure artean jarraitzen duela. Kasu egin diezaiegun haien aginduei, ez diezaiegun bizkarra eman.

Hondarribian, 2020ko ekainaren 7an

ALKATEA

Txomin Sagarzazu Ancisar



HONDARRIBIKO UDALA

posible contagio. Por tanto, insisto una vez más en pedir a todas las personas vecinas de Hondarribia, y a los visitantes que accedan a nuestra Ciudad, que sean minuciosos y estrictos en el cumplimiento de las medidas de seguridad sanitaria establecidas por las Autoridades competentes, y así, en los espacios al aire libre o cerrados, sean públicos o privados, en el transporte, en sus actividades y reuniones laborales, profesionales, sociales y familiares, de ocio o esparcimiento, etc., y en todo momento, mantengan 2 metros de distancia de seguridad sanitaria entre personas, hagan uso de mascarillas, y mantengan una continua higiene, lavándose las manos con frecuencia o haciendo uso de hidrogeles.

No podemos dar lugar a que la enfermedad vuelva a alterar nuestras vidas, a afectarlas e incluso a poner fin a ellas de forma traumática, como ha sucedido en los meses pasados. No podemos pensar ingenuamente que ya estamos libres de la enfermedad, que tan solo ha sido un duro proceso, pero que ya ha pasado y ha quedado atrás. Los profesionales sanitarios nos recuerdan constantemente que la enfermedad sigue entre nosotros. Hagamos caso a sus indicaciones, no les demos la espalda.

En Hondarribia, a 7 de junio de 2020